# Xedapen Orokorrak

## NEKAZARITZA, ARRANTZA ETA ELIKADURA SAILA

### 6560

184/2008 DEKRETUA, azaroaren 11koa, Euskal Autonomia Erkidegoko landa turismoko establezimenduetan inbertitzeko diru-laguntzak emateko erregimena arautu duena.

Landa garapenari buruzko apirilaren 8ko 10/1998 Legearekin bat etorriz, landa inguruneak balio anitzeko ekarpen garrantzitsuak egiten ditu gizartean. Baina ekarpen horiek Euskadiko diseinu sozioekonomikoan duen tokiaren araberakoak izango dira, hiri munduarekin dituen harremanak orekatzeaz gainera ingurune erakargarria izateko inguruabarrak sortzen ahalegintzen delako biztanleen gutxitzea gelditu eta jarduera berriak ezartzeko asmoz.

Nekazaritzako ustiategi baten iraupena bermatzeko, bertan egiten diren jarduera ekonomikoak dibertsifikatu daitezke. Horretarako, hain zuzen, ustiategiko jarduerarekin bateragarriak diren eta errenta osagarria emango duten jarduerak sortu behar dira eta, hauek, zuzeneko enplegua mantentzen edo sortzen lagunduko dute, batez ere aisia edo turismoa bezalako esparruetan. Gainera, nekazaritzako ustiategi bat dibertsifikatzeko ekimenek landa inguruneko gazteei eta emakumeei zuzendutako jarduera ekonomikoa eta enplegua bultzatzeko aukera paregabea eskaintzen dute.

Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Sailak landa turismoko jarduera, hau da, nekazaritzako ustiategiari lotutako jarduera sustatzen ari da bere helburua ohikoa dugun eta euskal gizarteak erabat onartzen duen jarduna gaurkotzea delako, landako erkidegoak mantendu eta finka daitezen, horietan berezkoak diren kultura eta bizimoduak dauden bezala manten daitezen, erkidego horietako biztanleen bizi-kalitatea hobetu dadin eta enplegua sortu eta mantendu dadin. Azken finean, landa ekonomia dibertsifikatzeko neurriak hartuko dira nekazaritzako ustiategiak iraunarazteko.

Landa edo baserri giroko turismoa nekazaritzakoak ez diren jarduerak dibertsifikatzeko neurrien barruan sartzen da; Batzordearen 2008ko otsailaren 15eko C 704 Erabakiaren bidez onetsi zen «Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Garapen Iraunkorreko Plana» -LGIP- (2007-2013) izenekoan jasotzen da eta Erkidegoaren landa garapenerako laguntzei buruzko araudi berriaren itzalpean (Kontseilu Europarraren 2005eko irailaren 20ko 1698/2005 Araudia, Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsaren - Feader- bidez landa garapenari laguntzeari buruzkoa) landu da.

# Disposiciones Generales

## DEPARTAMENTO DE AGRICULTURA, PESCA Y ALIMENTACIÓN

### 6560

DECRETO 184/2008, de 11 de noviembre, por el que se regula el régimen de concesión de ayudas económicas para inversiones en establecimientos de agroturismo de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

De conformidad con la Ley 10/1998, de 8 de abril, de Desarrollo Rural, el medio rural realiza aportaciones importantes para el resto de la sociedad de carácter multifuncional. Dicha contribución dependerá del encaje que se le proporcione en el diseño socioeconómico de Euskadi, equilibrando sus relaciones con el mundo urbano y creando las condiciones necesarias para conformar un entorno atractivo, capaz de frenar su despoblamiento y atraer nuevas actividades.

La diversificación de las actividades económicas en una explotación agraria es una vía alternativa para afianzar la sostenibilidad de la misma, a través de actividades generadoras de una renta complementaria compatibles a la propia actividad de la explotación, por lo que actúan directamente en el mantenimiento o la generación de empleo directo, sobre todo en campos como el ocio o el turismo. Además, las actuaciones de diversificación en una explotación agraria constituyen una magnífica oportunidad para apoyar nichos de actividad económica y empleo orientados a los jóvenes y a la mujer rural.

A través de la promoción de la actividad de agroturismo, entendida como actividad circunscrita a la explotación agraria, el Departamento de Agricultura, Pesca y Alimentación busca actualizar una línea de fomento ya tradicional y de gran aceptación en la sociedad vasca dirigida al mantenimiento y consolidación de las comunidades rurales, a la conservación de la cultura y formas de vida que le son propias, así como a la mejora de la calidad de vida de sus habitantes y a la creación y mantenimiento de empleo. Se pretende así, afianzar la sostenibilidad de la explotación agraria a través de la medida de diversificación de la economía rural.

El agroturismo ha sido incluido dentro de la medida de diversificación hacia actividades no agrícolas, recogida en el «Plan de Desarrollo Rural Sostenible de la Comunidad Autónoma del País Vasco» -PDRS- (2007-2013), aprobado mediante Decisión de la Comisión C 704, de 15 de febrero de 2008, y elaborado al amparo de la nueva reglamentación comunitaria sobre ayudas al desarrollo rural como es el Reglamento (CE) n.º 1698/2005, del Consejo, de 20 de septiembre de 2005, sobre la ayuda al desarrollo rural a través del Fondo Europeo Agrícola de Desarrollo Rural (Feader).

Horrenbestez, dekretu honen bidez landa inguruko turismo jarduera mugatuko da, nekazaritza lanbidetzat duten pertsonen nekazaritzaren bidezko errentarako jarduera osagarri moduan. Alabaina, beste araudi batzuen itzalpean landa inguruetan eman daitezkeen turismoari lotutako bestelako jarduerak dekretu honen aplikazio-eremutik kanpo geratuko dira.

Hori dela bide, Landaberrik aldeko txostena egin ostean eta Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura sailburuak proposaturik, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoarekin bat etorriz eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2008ko azaroaren 11n egindako bilkuran eztabaidatu eta onetsi ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

***1. artikulua.–*** Xedea.

Dekretu honen helburua da Euskal Autonomia Erkidegoko landa turismoko establezimenduetan inbertitzeko diru-laguntzak emateko erregimena arautzea, Batzordearen 2008ko otsailaren 15eko C 704 Erabakiaren bidez onetsi zen Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Garapen Iraunkorreko Plana LGIP (2007-2013) izenekoaren itzalpean.

***2. artikulua.–*** Definizioa eta aplikazio-eremua.

1.– Landa turismotzat jotzen da landa ingurunean dauden establezimenduetan ostatua (mantenuarekin edo mantenurik gabe) eta bestelako zerbitzu osagarriak ematea prezio jakin baten trukean. Horrela ezartzen da, landa ingurunean turismo ostatua ematen duten establezimenduak arautzeko maiatzaren 28ko 128/1996 Dekretuko II. kapituluan (irailaren 23ko 210/1997 Dekretuak aldatuta).

2.– Dekretu hau Euskal Autonomia Erkidegoko landa ingurune guztietan aplikatuko da, hau da, nekazaritza, basogintza, nekazaritzako elikagaiak edo landari lotutako beste edozein jarduera eusten duten guneetan.

***3. artikulua.–*** Iraupena.

Dekretu hau Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Garapen Iraunkorreko Plana -PDRS- (2007-2013) indarrean dagoen bitartean aplikatuko da, oso-osorik gauzatu arte.

***4. artikulua.–*** Onuradunak eta betekizunak.

1.– Dekretu honetan ezartzen diren diru-laguntzei heldu ahal izango diote nekazaritzako ustiategi bateko titularrak edo titularkideak eta elkarte modura eratutako ustiategietako kideak, baldin eta eskabidea aurkezten denean hurrengo betekizunak betetzen badituzte:

a) Nekazariak izatea.

b) Landa turismoko establezimenduaren jabea izatea edo jarduera horretan aritzeko moduko ahala edo baimena duen pertsona izatea eta establezimendua dagoen nekazaritzako ustiategian edo alboan bizi izatea.

Así pues, a través del presente decreto se acota la actividad turística en el medio rural como una actividad complementaria de la renta agraria de quienes se dedican profesionalmente a la agricultura, quedando así fuera de su ámbito de aplicación otras actividades de naturaleza turística que bien se pueden dar en el medio rural al amparo de otras normativas.

En su virtud, previo informe favorable de Landaberri, a propuesta del Consejero de Agricultura, Pesca y Alimentación, de acuerdo con la Comisión Jurídica Asesora de Euskadi, y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 11 de noviembre de 2008,

DISPONGO:

***Artículo 1.–*** Objeto.

Es objeto del presente decreto regular el régimen de concesión de ayudas para inversiones en establecimientos de agroturismo de la Comunidad Autónoma del País Vasco, al amparo del Programa de Desarrollo Rural Sostenible de la Comunidad Autónoma del País Vasco PDRS 2007-2013, aprobado por Decisión de la Comisión C 704, de 15 de febrero de 2008.

***Artículo 2.–*** Definición y ámbito de aplicación.

1.– Se entiende por agroturismo la prestación de los servicios de alojamiento, con o sin manutención y otros servicios complementarios, mediante precio, en establecimientos ubicados en el medio rural, de acuerdo con las condiciones reguladas en el capítulo II del Decreto 128/1996, de 28 de mayo, por el que se regulan los establecimientos de alojamiento turístico en el medio rural, modificado por el Decreto 210/1997, de 23 de septiembre.

2.– El presente decreto se aplicará en la totalidad de las zonas rurales de la Comunidad Autónoma del País Vasco, entendidas éstas como aquellos espacios que sostienen actividades agrícolas, forestales, agroalimentarias o cualesquiera otras en relación con el medio rural.

***Artículo 3.–*** Ámbito temporal.

El presente decreto será de aplicación durante la vigencia del Programa de Desarrollo Rural Sostenible de la Comunidad Autónoma del País Vasco PDRS 2007-2013, hasta su total ejecución.

***Artículo 4.–*** Personas beneficiarias y requisitos.

1.– Podrá acogerse a las ayudas previstas en el presente decreto la persona titular o cotitular de una explotación agraria así como los miembros de una explotación asociativa que cumplan, a la fecha de la solicitud, los siguientes requisitos:

a) Ser persona agricultora a título principal (ATP).

b) Ser propietaria del establecimiento de agroturismo u ostentar sobre el mismo otra condición o autorización suficiente para poder ejercer la actividad y residir en la explotación agraria donde se ubique el establecimiento de agroturismo o aledaños.

Elkarte modura eratutako ustiategietan, gutxienez pertsona batek bete beharko ditu aurreko betekizunak.

c) Gutxienez etengabeko bi urteko antzinatasuna frogatzea landa turismoko establezimendua dagoen nekazaritza-ustiategian.

d) Ustiategia ekonomia aldetik bideragarria dela frogatzea; ingurumenari, higieneari eta abereen ongizateari buruzko Europako arauak betetzea eta titularraren gaitasun profesionala frogatzea.

2.– Nolanahi ere, nekazaritzako ustiategia Nekazaritzako Ustiategien Erregistroan egon behar da inskribatuta.

***5. artikulua.***– Inbertsioak eta laguntza jaso dezaketen gastuak.

1.– Dekretu honetan arautzen diren laguntzen ondorioetarako, laguntza jaso dezaketen inbertsiotzat hartuko dira ondoren zehazten direnen ondorioz sortutako gastuak:

a) Establezimendu berriak: landa turismoko establezimendu berria edo norberaren etxebizitza landa turismorako erabiltzeko egokitzea.

b) Egungo establezimenduen handitzeak.

c) Establezimenduen hobekuntzak, turismo esparruko sail eskudunak eman duen irekitzeko lizentzia aldatzea badakarte.

2.– Urteko laguntzen deialdian zehaztuko da inbertsioak zein denbora eremutan egin behar diren; eta, Xedapen Iragankorrean 2008ko ekitaldirako ezarri diren salbuespenetan izan ezik, dagokion deialdiaren ekitaldian hasi beharko dira.

3.– Hona hemen diruz lagunduko diren gastuak:

a) Burutzapen proiektua eta obra zuzendaritza idazteko gastuak.

b) Urbanizazio-lanak burutzeko gastuak.

c) Eraikitzeko lanak burutzeko gastuak.

d) Birgaitzeko lanak burutzeko gastuak.

e) Altzariak eta ekipamendua erosteko gastuak.

4.– Laguntzaren zenbatekoa kalkulatze aldera, inbertsioa gehienez 150.000 eurokoa izango da.

5.– Proiektuak eta obra zuzendaritzak idazteko gastuetan, kontuan hartu beharreko inbertsioaren % 10erako diru-laguntza emango da gehienez ere.

***6. artikulua.***– Baliabide ekonomikoak eta laguntzak esleitzeko prozedura.

En caso de explotaciones asociativas, al menos una de las personas partícipes habrá de reunir los requisitos anteriores.

c) Acreditar una antigüedad mínima de dos años ininterrumpidos en la explotación agraria donde se ubique el establecimiento de agroturismo.

d) Acreditar la viabilidad económica de la explotación, cumplir las normas comunitarias en materia de medio ambiente, higiene y bienestar de los animales y acreditar la capacidad y competencia profesional adecuada de su titular.

2.– En todo caso la explotación agraria deberá estar inscrita en el Registro de Explotaciones Agrarias.

***Artículo 5.***– Inversiones y gastos auxiliables.

1.– A los efectos de las ayudas reguladas en el presente decreto se considerarán como inversiones auxiliables los gastos ocasionados por:

a) Nuevas aperturas: establecimiento de agroturismo de nueva creación o adecuación de la vivienda para su destino agroturístico.

b) Ampliaciones del establecimiento ya existente.

c) Mejoras en el establecimiento que lleven aparejada la modificación de la licencia de apertura otorgada por el Departamento competente en materia de turismo.

2.– El ámbito temporal en el que habrán de materializarse las inversiones será determinado en la convocatoria anual de las ayudas y, salvo lo excepcionalmente previsto para el ejercicio 2008 en la Disposición Transitoria, deberán iniciarse en el ejercicio correspondiente a la convocatoria de que se trate.

3.– Se considerarán gastos subvencionables:

a) Los derivados de la redacción de proyectos de ejecución y de la dirección de obras.

b) Los de ejecución material de las obras de urbanización.

c) Los de ejecución material de las obras de edificación.

d) Los de ejecución material de las obras de rehabilitación.

e) Los correspondientes a la adquisición de mobiliario y equipamiento.

4.– El importe máximo de la inversión computable a los efectos del cálculo de la ayuda será de 150.000 euros.

5.– En lo que respecta a los gastos de redacción de proyectos y de dirección de obras, serán auxiliables hasta un máximo de 10% sobre la inversión computable.

***Artículo 6.***– Recursos económicos y procedimiento de adjudicación de las ayudas.

1.– Dekretu honetan jasotzen diren laguntzak finantzatzeko baliabide ekonomikoak LGENFaren ekarpenetik eta Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan xede horretarako ezartzen diren kreditu-etatik aterako dira.

Emango diren diru-laguntza guztien zenbatekoak ezin ditu gainditu aipatutako baliabideak edo horiek eguneratzean ezartzen den zenbatekoa, indarrean den legediaren arabera aurrekontuetan aldaketak egitea onartzen bada.

Alabaina, zenbateko hori gainditzen bada (laguntzak emateko prozedura ebatzi baino lehen), Landaren eta Itsasertzaren Garapenerako sailburuorde eskudunak ebazpen baten bidez emango du horren berri.

2.– Laguntzak azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuaren 51.4. artikuluan ezarritako lehiaketa bidez emango dira; dekretu horren bidez, hain zuzen, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onesten da. Horretarako, eskabideak alderatu egingo dira eta hurrenkeran sailkatuko dira, 12.2. artikuluan ezarritako balorazio irizpideak betez; ondoren, eta esleitutako kreditua amaitu arte, balorazio fasean gutxienez berrogeita hamabost (55) puntu lortzen dituzten eskabideei diru-laguntzak esleituko zaizkie.

***7. artikulua.***– Diru-laguntzen izaera eta zenbatekoa.

1.– Dekretu honen itzalpean ematen diren laguntzak itzuli behar ez diren diru-laguntzak izango dira.

2.– Dekretu honen bidez emandako diru-laguntzak gehienez ere diruz lagun daitekeen inbertsioaren % 40koak izango dira.

3.– Esleitzen den laguntzaren zenbatekoa proportzionaltasunaren sistemaren arabera zehaztuko da, hau da: deialdiaren diru kopurua 6.2. artikuluan aipatu den gutxieneko puntuazioa lortzen duten eskatzaileen artean banatuko da, 12. artikuluan azaltzen diren irizpideak aplikatuz eskabide bakoitzak balorazio fasean lortu duen puntuazioa kontuan hartuta. Horrez gain, beti errespetatuko da artikulu honetako aurreko puntuan ezarri den gehieneko ehunekoa edo, txikiagoa bada, eskatutako zenbatekoa.

4.– Emandako diru-laguntzek Europako Batzordearen 2006ko abenduaren 15eko 1998/2006 (EE) Araudian ezartzen den «minimis» araua bete beharko dute. Izan ere, aipatutako araudia 2006ko abenduaren 28an argitaratu zen Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean eta horren helburua minimis laguntzei Itunneko 87. eta 88. artikuluetan ezarritakoa nola aplikatu zehaztea da.

1.– Los recursos económicos destinados a financiar las ayudas contempladas en este decreto procederán de la contribución del Feader y de los créditos establecidos al efecto en los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma del País Vasco para cada ejercicio.

El volumen total de las ayudas a conceder no superará los citados recursos o la cuantía que resulte de su actualización, en el caso de que se aprueben modificaciones presupuestarias de conformidad con la legislación vigente.

En el supuesto de que se produzca dicho incremento, que habrá de tener lugar con carácter previo a la resolución de procedimiento de concesión de ayudas, se dará publicidad de tal circunstancia mediante resolución de la persona titular de la Viceconsejería de Desarrollo Agrario y Pesquero.

2.– La concesión de las ayudas se efectuará por el procedimiento de concurso previsto en el artículo 51.4 del Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco. A estos efectos, la concesión se realizará mediante la comparación de las solicitudes a fin de establecer una prelación entre las mismas atendiendo a los criterios de valoración fijados en el artículo 12.2, y adjudicando, hasta donde alcance el crédito asignado, únicamente subvenciones a aquellas solicitudes que alcancen un mínimo de cincuenta y cinco (55) puntos en la fase de valoración.

***Artículo 7.***– Naturaleza y cuantía de las ayudas.

1.– Las ayudas que se concedan al amparo del presente decreto tendrán la consideración de subvenciones no reintegrables.

2.– La cuantía máxima de la subvención de este decreto no podrá exceder del 40% de la inversión auxiliable.

3.– Para la determinación de la cuantía de cada ayuda que se adjudique, se acudirá al sistema de reparto proporcional, en virtud del cual la dotación económica de la convocatoria se distribuirá, entre las personas solicitantes que hayan alcanzado la puntuación mínima señalada en el artículo 6.2, en proporción a la respectiva puntuación que, en aplicación de los criterios que se expresan en el artículo 12, hubieran obtenido en la fase de valoración, respetando el porcentaje máximo de subvención establecido en el apartado anterior del presente artículo, o, en su caso, si fuera menor, el montante solicitado.

4.– Las ayudas que se concedan quedarán sujetas a la regla de «minimis» establecida en el Reglamento (CE) n.º 1998/2006 de la Comisión, de 15 de diciembre de 2006, relativo a la aplicación de los artículos 87 y 88 del Tratado a las ayudas de minimis, publicado en el Diario Oficial de la Unión Europea de 28 de diciembre de 2006. En base a esta regla, la ayuda total a una misma

Arau hori oinarritzat hartuta, bada, onuradun bakoitzak gehienez ere 200.000 euroko laguntza jaso dezake hiru zergalditan zehar (deialdia egin den zergaldian eta hurrengo bietan).

***8. artikulua.***– Prozeduraren hasiera.

Nekazaritza, Arrantza eta Elikadurako sailburuak emandako aginduaren bidez, urtero egingo da hemen arautaturako laguntzen deialdia; urtero irekiko dira laguntzen eskabideak aurkezteko epeak; urtero argitaratuko da laguntza horiek finantzatzeko dauden baliabide ekonomikoen zenbatekoa eta laguntzen jatorria, eta urtero zehaztuko da diruz lagun daitezkeen inbertsioak noiz gauzatu behar diren.

***9. artikulua.***– Eskabideak eta agiriak.

Dekretu honetan aurreikusitako diru-laguntzak eskatzeko, I. eranskin moduan ematen den inprimaki-eredua bete eta Landaren eta Itsasertzaren Garapenerako Zuzendaritzan edo Eskualdeko Nekazaritza Bulegoetan aurkeztu beharko da, hurrengo agiriekin batera:

a) I. eranskina, behar bezala beteta (sailaren web orrialdean ere eskura daiteke: www.nasdap.ejgv.euskadi.net).

b) Eskatzailea pertsona fisikoa bada, bere NANaren fotokopia.

c) Eskatzailea elkarte modura eratutako ustiategiko kidea ere badenean: identifikazio fiskalerako zenbakiaren (IFZ) fotokopia, erakundearen estatutuak, behar diren erregistro publikoetan eginiko inskripzioen egiaztagiriak eta ordezkari izateko ahalaren egiaztagiria.

d) Ordainketak egiteko edo hirugarrenei alta emateko dokumentazioa (agiri hau sailaren web orrialdean ere eskura daiteke: www.nasdap.ejgv.euskadi.net).

e) Eskabidea aurkeztu duen pertsonak edo erakundeak zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzari egin beharreko ordainketak eguneratuta dituela egiaztatzen duten agiriak, Foru Aldundiarenak eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintzarenak.

f) Ustiategia Nekazaritzako Ustiategien Erregistroan inskribatuta dagoela egiaztatzeko agiria.

g) Eskabidea aurkeztu duen pertsonak landa turismoko establezimendua dagoen nekazaritzako ustiategian gutxienez urte biko antzinatasuna duela frogatzen duen agiria; hori frogatzeko, hain zuzen, gauzatzen duen nekazaritzako jardunaren arabera Gizarte Segurantzako dagokion erregimenean alta emanda izan behar du eta azken bi ekitaldietako PFEZn nekazaritzako etekinak aitortu behar ditu.

h) Aurreko 4.1.d) artikuluan ezartzen den betekizuna betetzen duelako frogagiria.

i) Burutzapen proiektua; teknikari eskudunak idatziko du proiektu hori eta dagokion elkargo ofizialak

persona beneficiaria no será superior a 200.000 euros durante cualquier período de tres ejercicios fiscales (el correspondiente a la convocatoria de que se trate y los dos inmediatamente anteriores).

***Artículo 8.***– Inicio del procedimiento.

Anualmente por orden del Consejero/a de Agricultura, Pesca y Alimentación, se efectuará la convocatoria de las ayudas aquí reguladas; se abrirán los plazos de presentación de las solicitudes de ayuda; se dará publicidad al importe de los recursos económicos destinados a su financiación y la procedencia de los mismos, y se determinará el ámbito temporal en el que habrán de materializarse las inversiones subvencionables.

***Artículo 9.***– Solicitudes y documentación.

Las solicitudes para acogerse a las ayudas previstas en el presente decreto se formularán cumplimentando el impreso-modelo recogido en el anexo I y se presentarán bien ante la Dirección de Desarrollo Rural y Litoral o bien ante las Oficinas Comarcales Agrarias (OCAs), junto con la siguiente documentación:

a) Anexo I debidamente cumplimentado (también disponible en la página web del Departamento www.nasdap.ejgv.euskadi.net).

b) Fotocopia del DNI de la persona física solicitante.

c) Cuando además sea miembro de una explotación asociativa: fotocopia del número de identificación fiscal (NIF), estatutos de la entidad y acreditación de su inscripción en los registros públicos correspondientes, así como la acreditación del poder de representación que ejerza.

d) Documentación para el libramiento de pagos o alta de terceros (documento también disponible en la página web del Departamento www.nasdap.ejgv.euskadi.net).

e) Certificados de la instancia correspondiente, Diputación Foral y Tesorería de la Seguridad Social, acreditativos de que la persona o entidad solicitante se halla al corriente de sus obligaciones tributarias, así como de pagos a la Seguridad Social.

f) Certificación de inscripción de la explotación en el Registro de Explotaciones Agrarias.

g) Documentación acreditativa por parte de la persona solicitante de una antigüedad mínima de dos años en la explotación agraria donde se ubique el establecimiento de agroturismo a través de alta en el correspondiente régimen de la Seguridad Social en función de su actividad agraria así como declaración de rendimientos agrarios en el IRPF de los dos últimos ejercicios.

h) Acreditación del requisito recogido en el artículo 4.1.d).

i) Proyecto de ejecución redactado por facultativo y visado por el Colegio Oficial correspondiente o, en caso

emango du ontzat. Baina, inbertsioaren izaera edo zenbatekoa aintzat hartuta burutzapen proiekturik aurkeztu behar ez denean, honakoak emango dira: inbertsioaren deskripzioa jasotzen duen memoria, egingo diren gastuen proformako aurrekontua edota fakturak eta inbertsioa gauzatzeko aurreikusi den epea.

j) Udalaren baimena edota lizentziak, behar direnean.

k) Industria, Merkataritza eta Turismo Sailak emandako landa turismoko establezimendu batean jarduera garatzeko baimena.

l) Eskatzaileak inbertsioari buruzko ikastaroetan parte hartu badu edota Eusko Jaurlaritzak talde berezien bizi-kalitatea hobetze aldera sustatutako programetan parte hartu badu, horietan parte hartu izanaren frogagiria aurkeztu behar da.

Azken frogagiri horri dagokionez, establezimendu berriak irekitzen direnean nahikoa da esparru horretan eskumena duen organoaren idatzizko konpromisoa aurkeztea.

***10. artikulua.–*** Akatsak zuzentzea.

Eskabidean akatsen bat badago edo zehaztasunez bete ez bada, eskatzaileari jakinaraziko zaio. Horrela, eskatzaileak hamar egun izango ditu akatsak konpontzeko; aipatutako epean akatsak konpontzen ez baditu eskabidean atzera egin duela ulertuko da, Landaren eta Itsasertzaren Garapenerako zuzendariak ebazpena eman ondoren, eta espedientea artxibatzeko egoki diren ekintzak burutuko dira.

***11. artikulua.–*** Diru-laguntzen organo kudeatzailea.

Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Saileko Landaren eta Itsasertzaren Garapenerako Zuzendaritzak kudeatuko ditu dekretu honetan aurreikusten diren laguntzak.

***12. artikulua.–*** Balorazio-Batzordea eta balorazio-irizpideak.

1.– Aurkezten diren eskabideak aztertu eta baloratuko dituen Balorazio Batzordea eratuko da. Bertan, Eusko Jaurlaritzako Landaren eta Itsasertzaren Garapenerako Zuzendaritzako bi teknikari ariko dira, zuzendariak berak izendatuta, eta beste hiru teknikari, hiru foru aldundien ordez.

2.– Balorazio Batzordeak aurkezten diren eskabideak aztertu eta baloratuko ditu eta, ondoren, prozedura ebazteko proposamena egingo dio Landaren eta Itsasertzaren Garapenerako zuzendariari. Horretarako, hurrengo irizpideak hartuko ditu kontuan:

a) Inbertsioa egiten den kokalekuaren landatartasun-maila: gehienez 20 puntu.

de que por la naturaleza o importe de la inversión no fuera necesario, memoria que incluya una descripción de la inversión, presupuesto y/o facturas proforma de los gastos a efectuar, así como plazo previsto para la ejecución de la misma.

j) Permiso y/o licencia municipal en su caso.

k) Autorización para poder desenvolver la actividad en un establecimiento de agroturismo emitido por el Departamento de Industria, Comercio y Turismo.

l) De darse el caso, acreditación por parte de la persona solicitante de la asistencia a cursos relacionados con la inversión y/o de la participación en programas promovidos por el Gobierno Vasco y tendentes a mejorar la calidad de vida de colectivos especiales.

Respecto a esta última acreditación, y cuando se trate de nuevas aperturas, bastará compromiso escrito expedido por el órgano competente en la materia.

***Artículo 10.–*** Subsanación de defectos.

Si en la solicitud se advirtiera algún defecto o inexactitud se le comunicará a la persona solicitante, quien dispondrá de un plazo de diez días para proceder a su subsanación, transcurrido el cual sin haber procedido a dicha subsanación se le tendrá por desistido en su petición, previa Resolución de la persona titular de la Dirección de Desarrollo Rural y Litoral, y se procederá a realizar las oportunas acciones para el archivo del expediente.

***Artículo 11.–*** Órgano gestor de las ayudas.

Corresponderá a la Dirección de Desarrollo Rural y Litoral del Departamento de Agricultura, Pesca y Alimentación la gestión de las ayudas objeto del presente decreto.

***Artículo 12.–*** Comisión y criterios de valoración.

1.– Para el análisis y evaluación de las solicitudes presentadas se constituirá una Comisión de Valoración, integrada por dos personas de nivel técnico de la Dirección de Desarrollo Rural y Litoral del Gobierno Vasco, designadas a tal efecto por la persona titular de la Dirección y por tres personas, a su vez de nivel técnico, en representación de cada una de las tres Diputaciones Forales.

2.– La Comisión de Valoración efectuará la evaluación y valoración de las solicitudes presentadas y formulará a la persona titular de la Dirección de Desarrollo Rural y Litoral la propuesta de resolución del procedimiento, tomando en consideración los siguientes criterios:

a) Grado de ruralidad donde se ubique la inversión: hasta 20 puntos.

b) Proiektua Eskualdeko Landa Garapenaren 2007-2013ko Planera egokitzea: gehienez 20 puntu.

c) Nekazari lanetan dabiltzan nekazari gazteek sustatutako proiektuak: gehienez 10 puntu.

d) Nekazari lanetan dabiltzan emakumezko nekazariek sustatutako proiektuak: gehienez 10 puntu.

e) Artisau-produktuak landu eta saltzen dituztenek sustatutako proiektuak: gehienez 15 puntu.

f) Kalitate-parametroak eta turismo jasangarria lortzeko egindako inbertsioak gehienez 15 puntu.

g) Eskatzaileak inbertsioari buruzko ikastaroetan parte hartu izanaren egiaztapena: gehienez 5 puntu.

h) Eusko Jaurlaritzak talde berezien bizi-kalitatea hobetze aldera sustatutako programetan parte hartzea: gehienez 5 puntu.

Eskatzaileak gutxienez 55 puntu lortu behar ditu laguntza jaso ahal izateko.

Emandako laguntzen zenbateko zehatza, lortutako puntuazioaren arabera, honako baremazio-taulan oinarritzen da:

| Balorazio txostenaren puntuazioa | Laguntzaren ehunekoa |
|---|---|
| 90 - 100 puntu | % 40ra arte |
| 80 - 89 puntu | % 30era arte |
| 70 - 79 puntu | % 20ra arte |
| 60 - 69 puntu | % 10era arte |
| 55 - 59 puntu | % 5era arte |
| 55 puntu baino gutxiago | % 0 |

3.– Batzordeak, bere zereginak betez, eskabidea aurkeztu duen pertsonari edo erakundeari eska diezaioke eskabidea behar bezala ulertzeko beharrezkoak diren agiri osagarriak aurkez ditzala; horrez gain, beharrezkotzat jotzen badu, kanpoko pertsonen iritzia ere eska dezake.

4.– Ebazpen proposamenak gutxienez honakoak jasoko ditu:

a) Deialdiaren betekizunak bete ez direlako ezestea proposatzen diren eskabideen zerrenda eta, horrekin batera, ezesteko proposamenaren arrazoia.

b) Diru-laguntzak ematea proposatu den proiektuen zerrenda. Bertan, proiektu bakoitzak lortutako puntuazioa, eskatzailearen identitatea, inbertsioaren zenbatekoa, burutzeko epea eta proposatutako diru-laguntzaren zenbatekoa jasoko dira.

b) Adaptación del proyecto al correspondiente Programa de Desarrollo Rural Comarcal 2007-2013: hasta 20 puntos.

c) Proyectos cuyos promotores sean jóvenes agricultores que se dediquen a la agricultura a título principal: hasta 10 puntos.

d) Proyectos cuyos promotores sean mujeres agricultoras que se dediquen a la agricultura a título principal: hasta 10 puntos.

e) Proyectos cuyos promotores elaboren y vendan productos artesanales: hasta 15 puntos.

f) Inversiones realizadas para la obtención de parámetros de calidad y turismo sostenible: hasta 15 puntos.

g) Acreditación por parte de la persona solicitante, de asistencia a cursos de formación relacionada con la inversión: hasta 5 puntos.

h) Participación en programas promovidos por el Gobierno Vasco y tendentes a mejorar la calidad de vida de colectivos especiales: hasta 5 puntos.

La persona solicitante necesitará un mínimo de 55 puntos para poder acceder a la ayuda.

La cuantificación concreta de las ayudas a conceder, en función de la puntuación obtenida, se fundamenta en la siguiente tabla de baremación:

| Puntuación informe de valoración | Porcentaje de ayuda |
|---|---|
| Entre 90 y 100 puntos | Hasta el 40% |
| Entre 80 y 89 puntos | Hasta el 30% |
| Entre 70 y 79 puntos | Hasta el 20% |
| Entre 60 y 69 puntos | Hasta el 10% |
| Entre 55 y 59 puntos | Hasta el 5% |
| < de 55 puntos | 0% |

3.– La Comisión podrá, en el desempeño de su cometido, requerir a la persona o entidad solicitante la presentación de la documentación complementaria necesaria para la cabal comprensión de la solicitud, así como recabar la opinión de las personas expertas que considere necesario.

4.– La propuesta de resolución contendrá como mínimo:

a) Relación de las solicitudes que se proponga desestimar por no cumplir los requisitos de la convocatoria, junto con la motivación que fundamenta la propuesta de desestimación.

b) Relación de proyectos para los que se propone la concesión de subvenciones, indicando para cada uno de ellos la puntuación obtenida, la identidad de la persona solicitante, el importe de la inversión, el plazo de ejecución y la cuantía de la subvención propuesta.

***13. artikulua.***– Ebazpena, errekurtsoak, ebazteko eta jakinarazteko epeak, jakinarazteko modua eta publizitate-prozedura.

1.– Deialdian aurkezten diren eskabideak prozedura bakarrean izapidetuko dira. Ebazpena Landaren eta Itsasertzaren Garapenerako zuzendariak emango du, Balorazio Batzordeak proposamena egin ostean, eta horren bitartez interesdunek azaldutako gai guztiak ebatziko dira.

2.– Ebazpenean zehaztuko da eskatutako diru-laguntzak emango edo, hala dagokionean, ukatuko diren. Diru-laguntza ematea erabakitzen denean, hurrengo datuak adieraziko dira: pertsona edo erakunde onuradunak, diruz lagundutako proiektua, aurreikusitako inbertsioa eta burutzapen epea eta emandako diru-laguntzaren zenbatekoa. Izan ere, laguntzaren zenbatekoan bereizita adierazi beharko dira zein zati finantzatuko den LGEN-Fren kargura eta zein Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kargura. Diru-laguntza ukatzen denean, horren arrazoiak azalduko dira.

3.– Aurreko paragrafoan aipatutako ebazpenak ez du azkenduko administrazio bidea, eta beraren aurka interesdunek gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango diote Nekazaritzaren eta Arrantzaren Garapeneko sailburuordeari jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik hilabete igaro baino lehen, Administrazio Publikoen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 114 eta 115. artikuluetan ezarritakoarekin bat etorriz.

4.– Ebazpena interesdunei jakinaraziko zaie, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuta.

5.– Deialdiaren agindua argitaratu eta hurrengo egunetik sei hilabete igaro baino lehen ebatzi behar da prozedura eta jakinarazi behar zaie interesdunei ebazpena. Epe horretan ebazpena ez bada argitaratzen Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, interesdunek ezetsitzat jo ahal izango dute diru-laguntzaren eskaera, Administrazio Publikoen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 44.1. artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako.

6.– Dekretu honetan ezarritako diru-laguntzen erakunde onuradunei ez zaie laguntzarik emango, ez emandakoan ordainduko, baldin eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta beraren erakunde autonomoek emandako izaera bereko laguntzen edo diru-laguntzen esparruan itzultze- edo zehatze-prozeduraren bat bukatu gabe eta izapidetzen badute.

***14. artikulua.***– Onuradunen betebeharrak.

Dekretu honetan aurreikusten diren laguntzen onuradunek ezinbestean bete behar dituzte Euskadiko

***Artículo 13.***– Resolución, recursos, plazos para resolver y notificar, modo de notificación y procedimiento de publicidad.

1.– Las solicitudes presentadas en la respectiva convocatoria se tramitarán en un único procedimiento cuya resolución, decidiendo todas las cuestiones planteadas por las personas interesadas, corresponde, a propuesta de la Comisión de Valoración, a la persona titular de la Dirección de Desarrollo Rural y Litoral.

2.– La resolución determinará la concesión y, en su caso, la denegación de las subvenciones solicitadas, expresando en el caso de las primeras, la persona o entidad beneficiaria, el proyecto subvencionado, la inversión y el plazo de ejecución previstos, el importe de la subvención concedida con distinción de la parte financiada con cargo al Feader y la que se financia con cargo a los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma del País Vasco. En el caso de las denegadas recogerá los motivos que fundamenten la denegación.

3.– La Resolución a la que se refiere el párrafo anterior no pone fin a la vía administrativa y, contra la misma las personas interesadas podrán interponer recurso de alzada ante la persona titular de la Viceconsejería de Desarrollo Agrario y Pesquero, en el plazo de un mes contado a partir del día siguiente al de la notificación, de conformidad con los artículos 114 y 115 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

4.– La Resolución que se adopte será notificada a las personas interesadas a través de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

5.– El plazo máximo para resolver el procedimiento y notificar lo resuelto a las personas interesadas será de seis meses a contar desde el día siguiente a la publicación de la correspondiente orden de convocatoria, transcurrido el cual sin haberse publicado en el Boletín Oficial del País Vasco resolución alguna, los interesados podrán entender desestimada su solicitud de subvención, a los efectos de lo establecido en el artículo 44.1 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

6.– La concesión y, en su caso, el pago a las entidades beneficiarias de las subvenciones contempladas en este decreto quedarán condicionados a la terminación de cualquier procedimiento de reintegro o sancionador que habiéndose iniciado en el marco de subvenciones o subvenciones de la misma naturaleza concedidas por la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi y sus organismos autónomos, se halle todavía en tramitación.

***Artículo 14.***– Obligaciones de las personas beneficiarias.

Las personas beneficiarias de las ayudas reguladas en el presente decreto deberán cumplir además de las

Ogasun Nagusiaren Antolamendurako Printzipioen Legearen (azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuak onetsitakoa) Testu Bategineko 50.2. artikuluan laguntzen onuradunei ezartzen zaizkien betebeharrak; baita ondoren jasotzen direnak ere:

